

Calderon de la Barca euskaraz, ametsetik bizitzara

Xabier Payak 'Bizitza amets'euskaratu du, eta Monika Etxebarriak, Alain-Fournierren 'Meaulnes handia'

Gorka Erostarbe Donostia

Jendeari Calderon de la Barcaren *La vida es sueño* itzultzen ari zela esaten zioean, harrিতta erantzuten omen zioten. «Baina ez al dago jada euskaraturik?». Erantzun horrek harrিতta uzten zuen Xabier Paya. «Erantzunak azaltzen zidan hori zioean ez zuela ezagutzen obra, ez zuela irakurria. Liburuaren barruko ezagutuz gero, ez luke hain ziurtzat emango euskaraz jada egotetik». Biktoriano Iraolak *Euskal-Erria* aldizkarian, 1881ean, Pedro Calderon de la Barca idazle espainiar barrokoari eskainitako bertsoak kantatuz hasi zuen aurkezpen ekitaldia Payak: «Bizitza dala ametsa diyon liburu aundi argatik, zer esango det, famatuzteko euskarak ez badu itzik?/ Baña lan ura oroitutzian zeñek txapela bu-

rutik/ ateratuta ez du onratzen goitandi ura burutsik?». Bertso harekin bat dator bertsolari eta itzultzailea: «Are gehiago, idazle pasaitarrak bertsook jarri zituenetik 2012. urtera euskara izugarri garatu bada ere, Etxepareren hizkuntzak oraindik ez du hitzik Calderon de la Barcaren lana merezi duen bezala goratzeko».

Gabezia hori estaltzeko gogoak akuilaturik, eta langintzaren zailtasunaz jabeturik, ekin zion Payak 3.319 bertso lerroz osaturiko antzerki testu hori itzultzeari. Eta ez nolanahi, gainera: edukari leial izateaz gain, formari ere leial izateko helburuarekin ekin baitzion lanari; hitz neurtuz eta errimak errespetatuz, alegia. «Nik horri muzin egin behar nion, beste kultura batzuek egiten duten bezalaxe?», galdetu du egileak. Esaterako, Frantziako kulturaz ari da. Frantsesez hitz lauz itzuli baitzuten Calderon de la Barcaren idatzi eta 1635ean estreinatutako lana. Ingelesez, aldiz, hitz neurtuz. «Ingalaterran badute antzerkia neurtitzetan idazteko tradizioirik. Eta neure buruari galdeztzean Euskal Herrian ba al den



Monika Etxebarria eta Xabier Paya, euren liburuak eskuetan ditzuzela, atzo, Donostian. ANDONI CANELLADA / ARGAZKI PRESS

neurri eta errimarako ohiturarik. Erantzuna garbi izan nuen». *Bizitza amets* euskaratzeko ametsa bete du, hortaz, Payak, eta Literatura Unibertsala bilduman plazaratu dute. Silbak, hamardunak, erromantzeak, bostdun txikiak, laudunak eta zortzidunak ditu antzeulanak, eta horien ohiko neurriak errespetatu ditu, lizentzia gutxi batzuen salbuespenarekin. «Esangarritasuna, ikusgarritasuna eta emozioa islatu behar ditu testuak, eta errima eta neurria saihestea ez zen horren mese-detan joango».

Nobela inizatitako

Aurrez, Tennessee Williamsen *Desio izeneko tranbia* euskaratu zuen Payak. Hura ere Literatura

Unibertsala bilduman plazaratu zuen. Gaur egun, Alberdania, Erein eta Igela argitaletxeek sostengatzen dute bilduma, elkarlanean. Bilduma horretan plazaratu dute, halaber, Henri-Alban Fournier idazle frantsesaren (1886-1914; Alain-Fournier ezizen artistikoz) *Meaulnes handia* gazteentzako nobela, Monika Etxebarriak euskaraturik. Lehenago Jean Paul Sartreren *Goragalea* eta Danilo Kisen *Hildakoen Entziklopedia* euskaraturik ditu bilduma horretarako.

Meaulnes handia gehien irakurri diren frantsesezko eleberrietako bat da, eta klasiko bihurtua da. Hamaika hizkuntzatar itzulia izan da, eta 1913az geroztik bost milioi aletik gora saldu dira pol-

tsikoko edizioan, eta izenburu bereko bi film egin dituzte. Idazleak 18 urte zituela neska bat ezagutu zuen: Yvonne de Quievrecourt (1885-1964). Amodio ezinezko bat izan zen, baina topaketa labur horrek, ordea, erabat markatu zuen idazlea. Neska hura izango zuen inspirazio iturri *Le Grand Meaulnes* idazteko.

Nobela «irakurterraza» da, Etxebarriaren hitzetan, eta ahalgin handiena irakurtzeko erraza izateko egin zuen itzultzaileak. Erakargarri izateko hainbat arrazoitu ditu liburuak, Etxebarriaren irudiko, batez ere gazteentzat. Abentura liburutzat edo liburu inizatitkotzat jotzen dute aditu gehienek, baina bestelako ezauzgarri batzuk ere baditu.



finala

Martxoak 16, larunbata, 17:30ean GASTEIZ (Printzipal Antzokian)



Manex Agirre, Aier Otamendi, Oihane Perea, Itzi Vivaspre, Ruben Sanchez, Jagoba Apaolaza

www.arababertsozale.org

Sarrerak salgai: www.bertsoasarrerak.eu



berria

Elizondon jokatu da Nafarroako Txapelketako azken finalaurrekoa

Saioaren ostean jakingo da Julio Soto eta Xabier Silveirarekin batera zeintzuk izango diren beste sei finalistak

Erredakzioa

Gaur jokatu da Nafarroako Bertsolari Txapelketako hirugarren eta azken finalaurrekoa, Elizondoko Lur aretoan, 17:30ean. Saio horren ostean jakingo da zeintzuk izango diren finalean ariko diren zortzi bertsolariak. Hain zuzen, finala martxoaren 23an izango da, Iruñean. Oraingoz, Julio Soto eta Xabier Silveira dira finalerako txartela segurtatua duten bakarrak, euren finalaurrekoak irabazi baitzituzten. Gainerakoak nor izango diren Elizondoko finalaurrekoaren ostean

jakingo da: saioa irabazlea zuzenean sailkatuko da, eta gainerako bost postuak finalaurreko guttuen puntuazioaren arabera erabakiko dira.

Elizondoko saioan honako bertsolari hauek izango dira: Migel Mari Elosegi, Luze; Juan Zelaia; Aimar Karrika; Oier Lakuntza; Xabi Maia, eta Saioa Alkaiza. Fernando Anbustegik aurkeztuko du saioa. Saiorako sarrera zortzi eurotan dago; bost eurotan, berriz, Bertsozale Elkarteko bazkideentzat eta 16 urtetik beharagoentzat. Sarrerak salgai daude www.bertsoasarrerak.eu webgunean, eta lekuak mugatuak dira. Egun berean sarrerak erosteko, leihatila 16:00etan zabalduko da, aretoan bertan.

Osinalde saria, Ordizian

Tradizio handikoa da Osinalde bertso sariketa. Gaur jokatu da 43.

edizioaren hiru saio puntuagarrietan aurrena, Ordizian (Gipuzkoa). Orotara 18 bertsolari gaztek parte hartuko dute, eta saio bakoitzeko seinaka arituko dira. Ordiziako Arri Berri elkartean jokatu da gaurkoa, eta sei bertsolari hauek ariko dira: Aitzol Iturbe, Josu Oiarzabal, Ainhoa Comas, Paula Amilburu, Aitor Salegi eta Nekane Zinkunegi. Azken horrek Jokin Bergararen lekua hartuko du, hark ezingo baitu kantatu Ordizian.

Bigarren saio baliagarria, Zaldibiako Joxepane Elkartean izango da, hilaren 16an. Estreinakoz jokatu da han. Aurten, beraz, aldatzea izango da; Idiazabaldek Zaldibiara. Hirugarren eta azken kanporaketa Gabiriako Aztiri auzoko elkartean izango da, martxoaren 23an. Saio bakoitzetik bi bertsolari sailkatuko dira finalerako. Gabirian jokatu da finala, apirilaren 6an.